

Podemos Euskadi kalera aterako da herritarren proposamenak jasotzeko, hauteskunde programa parte-hartzaileak egiteko xedeaz

Ostiralean informazio mahaiak jarriko dira udalerrietan, herritarrei eta gizarte zibilari entzuteko eta euren ideiak jasotzeko; horrela, guztion artean, “merezi duzun udalerrria lortzeko”

2023/02/22. Podemos Euskadik informazio mahaiak jarriko ditu datorren ostiralean EAEko udalerrietan, herritarren proposamenak jasotzeko, maiatzeko udal- eta foru-bozetarako hauteskunde programetan sartzeko. “Partaidetzako programak” izeneko jardunaldia herrietara eta hirietara iritsiko da, herritarrei eta gizarte zibilari entzuteko, haien kezkek ezagutzeko eta haien beharrei arreta emateko, haien arazo eta eskaerei irtenbide eraginkorrak eskaintzeko.

Kaleko ekintza horretan parte hartuko dute Podemos Euskadiren zirkuluek, militantziak, alderdian kargu organikoak eta instituzionalak dutenak eta udal- eta foru-hauteskundeetarako hautagaiek, auzotarrekin beren kezkei buruz hitz egiteko eta beraien herria, hiria, eskualdea eta lurraldea hobetzeko proposamenen berri izateko.

Mahaietan hautestontziak jarriko dira herritarren proposamenak jasotzeko, eta aztertu egingo dira hauteskunde-programetan sartu ahal izateko.

Herritarren proposamenak kalean jasotzeko jardunaldia Podemos Euskadik abian jarritako kanpainaren barruan kokatzen da, gizarte zibilaren eta herritarren eskutik hauteskunde programa parte-hartzaileak abian jartzeko. Ekimen horren barruan kokatzen da Podemos Euskadiren proposamen nagusiak zehazten dituen liburuxka bat postontzietan banatzea, udal-politika atseginagoa, oparagoa eta jasangarriagoa lortzeko. Bertan, herritarrak animatzen dira QR kode baten edo helbide elektronikoen bidez, beraien proposamenak bidal ditzaten batzarretarako, eta guztien artean, “merezi duzun udalerrria lortzeko”.

Podemos Euskadik oso argi dauka, herritarren ideiak batuta, hiri bizigarriagoa lor daitekeela, auzoak konektatuta eta berdegune gehiagorekin, jasangarritasuna, irisgarritasuna sustatzen dituen eta puntu kritikoak ezabatzen dituen. Jendearen proposamenak elkartuta, bidezkoagoa den hiria lor daiteke, non zerbitzu publikoak edo kalitatezko enplegua eskuratzea ez den pribilegio bat.

Guztionean artean bat eginez gero, hiri demokratikoagoa lor daiteke, herritarrek beren burua erakundeetan ordezkatzuta ikusten duten, gardentasunean eta herritarren benetako partaidetzan oinarritutako kudeaketatik abiatuta. Elkarrekin bat eginez, azken batean, helburu hau lor daiteke: guztientzako hiriak eraikitzea, non haurren, gazteen eta haien adinekoren alde jardungo den, eta zaintzari lehentasuna emango zaion.


Horregatik, Podemos Euskadik datorren ostiralean informazio mahaietara hurbilzeko deia egiten die herritarrei, proposamenak hautestontzietan uzteko. Jarraian zehazten dira informazio-mahaiak eta horien ordutegiak.

ÁRABA

MUNICIPIO	DIRECCIÓN	HORARIO
ALEGRÍA-DULANTZI (otsailak 25)	Kale Nagusia 16 (estankoaren aurrean)	12.00-14.00
AMURRIO	San Anton plazaren sarreran	11.00-13.00
GASTEIZ	Leizaola lehendakariaren plaza (Olagibel anbulatorioaren aurrean).	11:30-13:30

BIZKAIA

MUNICIPIO	DIRECCIÓN	HORARIO
ABADIÑO	Trañabarren hiribidea	18:30-20:30
ABANTO-ZIERBENA	Blasco Ibáñez	17:00-20.00
AMOREBIETA	Sabino Arana 1	12.00etik aurrera
BILBO	Osasun Langileen plaza (lehengo Intermodalaren plaza)	12.00-14.00
DURANGO	Andra Mariren Arkupea	16:30etik aurrera
ELORRIO	'Azoka txikia'	11:00-13:00

		NOTA INFORMATIVA INFORMAZIO OHARRA
ENKARTERRI (Sodupe)	Herriko Plaza	17.00-19.00
GALDAKAO	Pontzi Zabala kalea, Eroski ondoko arkupea.	17.30etik aurrera
GETXO	Puente Colgante, Areta	17.00-19.00
LEIOA (2 mahai)	Sakonetako kiroldegia	18.00etik aurrera
	Lamiako, metroaren aurreko plaza	18.00etik aurrera

GIPUZKOA

MUNICIPIO	DIRECCIÓN	HORARIO
ANDOAIN	Andoaingo Podemos Ahal Duguko egoitza, Kale Nagusia 7	16.00-20.00
ARRASATE (otsailak 25)	Aretxabaleta, Mitarte Kalea	11:30-12:30
DONOSTIA	Plaza Sarriegi, San Juan Kalea 26	10.00-12.00
DONOSTIA-ESTE	Herrerako topoko plaza	12.00-14.00
EIBAR	Eibarko Podemos Ahal Duguko egoitza, Juan Guisasola 6, behea.	10.00-13.00 eta 17.00-19.00
ELGOIBAR	Elgoibarko Podemos Ahal Duguko egoitza, San Bartolome kalea 25, behea.	11.00-13.00 eta 17.00-19.00
ERRETERIA	Kapitan Enea - Biteri kalea.	17.00etik aurrera
IRÚN	Zabaltza plaza	17.00-19.00
TOLOSA	Tolosako Podemos Ahal Duguko egoitza, Korreo kalea 44 behea.	17:30-19:30